

Zoriona diruaren gauza al da?

Askotan ez gara konturatzen zein zoriontsuak garen, ez dakigu baloratzen inguratzen gaituzten eguneroko gauzak. Besteak begira behar ditugu konturatzeko zein zorte ona dugun bizi garen garai eta lekuan bizitzeko. Nahi dugun guztia nahi dugun momentuan izateko aukera dugu, aurreko mendeetan gertatzen ez zena. Rufina Ensunza XX.mendean jaiotako emakumea da eta duela egun batzuk, atsegin handiz berarekin hitz egin nuen. Protagonistak, bere bizitzan zehar izan dituen bizi-baldintzei buruz hitz egin zidan, teknologia gabeko eta ekonomia eskaseko urteetan izandako bizimoduari buruz.



Rufina eta bere familia bizi zen baserria gaur egun

1942. urteko otsailaren 5ean jaio zen, Emerandoko familia batean. Zazpi nebarreba ziren, bi mutil eta bost neska, bera guztien artean bosgarrena zen. Protagonistak aitortu zuen bezala, txikia zenean izan zituen bizi-baldintzak ez ziren batere egokiak. Baserri batean bizi zen bere neba-arreba eta gurasoekin. Logelak oso handiak ziren, baina bere ahizpa guztiekin partekatu behar zuen logela bakarra.

Larrauriko eskolara joan zen 13 urteak bete zituen arte. Garai hartan, ez zegoen eskolara eramaten zuten autobusik, ezta garraiorik ere, hortaz, eguneroko ibilbidea oinez egin behar izaten zuen.

Txikia zenean ohorezko matrikula bat eman zioten kristau-ikasbide arloan eta eskualdeko lehiaketa batean parte hartu zuen eta irabazi egin zuen. Irakasleek bere gurasoei esan zieten ikasketekin jarraitu behar zuela eta etorkizun izugarria izango zuela. Zoritarrez, egoera ekonomikoak behartu egin zituen gurasoak bere alabaren ikasketekin bukatzen.

Bestalde, protagonistak esandakoaren arabera, eskolan euskaraz hitz egitea debekatuta zegoen. Hori dela eta, gazteleraz mintzatzen ikasi zuen, etxean betidanik euskaraz hitz egin zuen eta. Franco-ren diktadurari dagokionez, Rufik esaten du bere bizitzan ez zuela eragin handirik izan. Jaio zenerako Espainian frankismoa ezarrita zegoen jada, beraz, berak ez du Errepublikatik Frankismora gertatutako aldaketarik bizi izan. Baina bere aitak eta amak asko sufritu zuten; “Nire gurasoek herritik ihes egin behar izan zuten, eta behartuta egon ziren erbestean bizitzera”, kontatzen du protagonistak. Etxean ez zen honi buruz hitz egiten, ez zuten gustuko egoera tragikoak azaleratzea eta bizi izandako sentimenduak berpiztea.

13 urte zituela, bere ahizpa nagusi batekin Bilbora joan zen bizitzera. Han, ostalaritzarekin izan zuen lehen harremana hasi zuen. “Zorte handia izan nuen ostalaritzan lan egiteko aukera izan nuenean”, esan du emakumeak. Garai hartan emakumeek zuten lanbiderik ohikoena etxekoandre izatea zen, bere ahizpa gehienek bezala. Hala ere, Rufiri asko gustatzen zitzaion jendearekin tratuan egotea, horregatik gelditu zen hirian ostalaritzan lan egiten denbora luzez. 22 urte zituela, bere seme-alaben

aita izango zena ezagutu zuen tabernan lan egiten zegoela, Felix Caballero. Elkar maitemindu eta 1965. urtean ezkondu egin ziren.



Rufi eta Felixen ezkontza (1965)

Bikote ezkonduak diru asko aurreztu zuen elkarrekin bizi eta familia bat sortzeko. Bakion, gaur egun *Eneperi* izenarekin ezagutzen den baserria erosi zuten; soloa, korta eta guzti. Taberna bat muntatu zuten ere. Lau seme-alaba izan zituzten: Itziar, Ester, Silvia eta Iñigo.

Seien artean antolatzen ziren soloan landatutako elikagaiekin, abereak zaintzen eta tabernan lan egiten. Protagonistak eginkizun gehigarri bat zuen, etxekoandre izatea. Ez zitzaion erremediorik gelditzen, etxeko emazte eta ama zen eta. Honetatik aparte, ukuiluan zituzten animalietatik eratorritako esne, gazta eta arrautzak saltzen zituzten merkatuan diru batzuk lortzeko. Kontuan hartu behar da, betebeharrak guztiek tresneria modernorik gabe egiten zituztela, hau da, ez zuten ez traktorarik, ezta lana egiten zieten gailurik ere. Haien eskuez baliatzen ziren guztia egiteko.

Bikoteak bizitza guztian zehar egindako lan handiaren ondorioz, bere seme-alaba guztiek eskolara joateko aukera izan zuten. Gainera, bakoitzak nahi izan zuen momentuan utzi zituen ikasketak.

Pertsonaiaren alaba gazteenak (Ester eta Silvia) Eneperitik jaitsi eta taberna berri bat ireki zuten Bakion, *nolako zura, halako ezpala!* Urte batzuk geroago, 2005. urtean, Felix hil zen. Ondorioz, Rufi bere seme gaztearekin bizitzera joan zen denboraldi batez, gaur egun bizi den etxera mugitu zen arte.

Egun, protagonistak bere alabei laguntzen die tabernan, janaria sukaldatzen. Ostalaritzarekin aritu da bizi osoan, Bilbon eta Bakion. Noizbehinka, bere neba-arrebak bisita bat egitera etortzen zaizkio eta bakoitzak bere seme-alaba eta bilobak ekartzen ditu. Guztiek txikitari bizi izan ziren baserrian ostatatzen dira. Orain dela urte batzuk erreformatu zuten, beraz, gaur egun baldintza hobean dago.



Rufiren senarra eta alaba Eneperin

Rufinaren istorioa argiena izan da azaltzeko ez dela beharrezkoa gure apeta guztiak asetzea, gutxirekin ere, oso zoriontsu bizi gaitzkeela. Guk nahi duguna izateko aukera dugu eta ez gara ezta hori baloratzeko gai ere!